

GAIZKI ERRANKA

Urte berriko asmoak



SANTI LEONÉ
@ororostorm

Dieta egiten hasi eta mehetzeko asmoarekin batera –zera, bihar hasiko naiz–, urtero bezala aurten ere gehiago idazteko eta irakurtzeko asmoa badaukat. Batez ere, zutabe honetako interesei begira, prentsa gehiago irakurtzeko asmoa.

Etxean estatu kolpe bat eman, telebistaz jabetu eta *Ur handitan* maizago jarri behar dut; eta larunbatetan, *ranchera* baten letra hondarreko ikasi edozein herriko jaietan. *Berria* sakonago aztertu, eta ARGIAko blogak sistematikoagoki irakurri; nire bloga enegarrenez berpizten saiatu nahiko nuke, eta otsail aldera, adibidez, zinema kritikari gazte jakin batekin nire adostasun eta miresmen –ez nahitaez hurrenkera horretan– erabatekoak adierazi, zinemari buruzko Telegrameko bere taldean parte hartzera utz diezadan. Euskal Herria ulertzeko, Atopia rol jokoa itsasargitako izateko zin egin diot nire buruari, *Diario de Navarra* bezain zientzia fikzio gogorra ez izan arren. Xahori buruzko zer edo zer idatziko dut.

Errealitate honetako Espainian zer gertatzen den jakiteko, Europako prentsa irakurtzeko promes egiten dut: iaz, Frantziako prentsari esker jakin nuen Vox alderdi ultraeskuindarra dela; *Süddeutsche Zeitung*-ek kontatu zidan Espainiakoa dela Europan estimu gutien duen monarkia, eta *Neue Zürcher Zeitung*-ek azaldu zuen epaileek politikariak ezarritako musikaren arabera egiten dutela dantza. Errealitate paralelo bateko Espainian zer gertatzen den jakiteko, berriz, Espainako hedabideei erne segituko diet: *El Español* esker jakin genuen Voxeko liderra gasolindegian batean gelditu eta Bimbo ogia eta Kinder arrautzak –baina ez normalak, aizue, txokolate zurikoak baizik– erosi zituela. Eta,aldi berean, saiatuko naiz gogoratzen euskaldun guziak ez direla Espainiaren menpe bizi.

Aurten ez dut 1.800 karaktereko muga gaindituko. Tira, hurrengo zutabeen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

IRUÑEA,
1919. urteko hilbeltzaren 19a...



ADUR
2019

“DE MIGUEL AUZIA EZ DA INONDIK INORA KASU ISOLATU BAT”

ADI, USTELKERIAREN AURKAKO ELKARTEA

“Azkeneko 40 urteotan erakunde publikoak bere probetxurako erabili dituen alderdi politikoaren kudeaketa eredu behar bezalako sakontasunez aztertze borondatek ez dugu inondik inora ikusi” epaiketan. “Nekez pentsa daiteke EAJren egiturek gertatzen ari zena ez zutenik ezagutzen. Ez da inondik inora kasu isolatu bat, *modu operandi* berdina antzeman da kasu andanatan, den-denak EAJri lotuak: Marguello kasua, Osakidetzako iruzurra, Karrantzako purinak, Hiriko eta Epsilon, Cabieces auzia...”. 2018/12/19

!di